

## Sateliteen gorakadari eusteko beharraz ohartarazi dute

Orbita baxuko sateliteentzako baimenak zorrotzago erregulatzeko beharraz ohartarazi dute aditu batzuek, [Science aldizkarian argitaratu duten artikuluan](#). Izan ere, dagoeneko milaka satelite daude espazioan, eta sekulako igoera aurreikusitako kopuruan.

Esaterako, 4.500 Starlink eta 630 OneWeb satelite inguru daude orbitan dagoeneko. Baina, dirudenez, hori hasiera besterik ez da. Izan ere, Telekomunikazioen Nazioarteko Batasunean irrati-frekuentziak erabiltzeko jasotzen ari diren eskaerak erakusten dute kopurua izugarri handituko dela hurrengo urteetan. Mila satelitek gorako 90 konstelazio baino gehiagorentzako eskaerak daude; eta, eskaera guztiak kontuan hartuta, kalkulatu dute orbitan dauden satelite-kopurua 115 aldiz handituko litzatekeela.



Starlink sateliteen arrastoa zeruan. ARG.: Egon Filter/CC-BY 4.0.

Satelite-kopurua handitzeak hainbat arazo eragin litzake: ikerketa astronomikoak oztopatzea, orbitan talkak gertatzeko arriskua handitzea, orbitan hondakinak sortzea... Eta, areago, adituek ohartarazi dute "espazio orbitala baliabide mugagabe gisa tratatuz, segurtasun- eta jasangarritasun-erronka handiak sortzen ari dela gizateria". ●

## Fukushimako urak isurtzeak ez duela arrisku esanguratsurik adierazi dute

Erradiazio eta segurtasun nuklearreko adituek [Science aldizkarian adierazi dutenez](#), Fukushima Daiichiko instalazio nuklearretik isurtzen ari diren ur erradioaktiboa ez da mehatxu esanguratsua, ez itsasoko bizidunentzat, ezta pertsonentzat ere.



Daichii zentral nuklearra, Fukushima.

ARG.: Tokyo Electric Power Co., TEPCO/CC-BY-SA 2.0.

Isurtzen ari diren urak duen kutsatzaile erradioaktiboa nagusia tritioa da, eta tritioak erradiotoxikotasun txikia du beste erradionukleido batzuekin alderatuta. Mundu osoko beste instalazio nuklear batzuek ere isurtzen dute tritioa itsasora, eta, adituen esanetan, haietan ere ez du ingurumen-ondorio esanguratsurik eragiten.

Gaiak pizten duen kezka kontuan hartuta, Fukushiman segurtasun-mugen oso azpitik ari dira isurtzen ura. Tritio-maila Japoniako Gobernuak ezarritako mugaren % 2,5koa da, eta gainerako erradionukleidoen mailak ezarritako mugen % 1en azpitik daude.

Energia Atomikoaren Nazioarteko Agentziak (IAEA) gainbegiratu eta egiaztatzen du isurtze-prozesua. Bada, hasierako txostenek adierazi dute tritio-maila oso txikia dela askatze-tokitik hurbil, eta inguruko arrainetan ez dela tritiorik hauteman. ●